

**LASARTE-ORIAKO UDALAREN EKINTZA-PLANEKO EKINTZAK
2. ILDO ESTRATEGIKOA: HIRI BARRUKO MUGIKORTASUNA ETA
IRISGARRITASUNA HOBETZEA**

EKINTZA	OHARRAK
<p>2.4.7.- Zirkulazioaren azterketa egitea</p> <p>EKINTZAK: Trafikoa lasaitzeko neurriak hartu dira (mantsoarazteko konkorrak), kaleak oinezkoentzako bihurtu dira (Askorena plaza) eta Michelingo garajeak eraiki dira.</p>	<p>Neurri murriztegiak eta eragingabeak.</p>
<p>2.4.8.- Txandakako aparkamendua probatzeko saiakera egitea</p> <p>EKINTZAK: Loidibarrengo Proiektuaren esparruan, parking bat egin da eta laster jarriko da martxan.</p>	<p>Kontuan izan dira herriko merkatariak?</p>
<p>2.5.9.- Garraio publikoaren intermodaltasunaren alde lan egitea</p> <p>EKINTZAK: Garraio publikoaren intermodaltasunaren alde lan egin da</p>	<p>Oso ekintza generikoa iruditzen zait, eta ez dela zehazten nola jardun. Intermodaltasuna sustatzeko modu bat izan daiteke "park and ride" aparkalekuak sortzea. Ia hiru urteren buruan, atzerapen pitin bat sumatzen da zerbitzua asumitzeko orduan.</p>
<p>2.6.10.- Bidegorriak jarriko diren aztertzea</p> <p>EKINTZAK: Ari da egiten, zatika, ibaiaren ondoko bidegorria, 3 kilometroko luzera izango duena.</p>	<p>Uste dut beharrezkoa dela oinezkoen eta bizikletazaleen sarbidea hobetzea Hipodromo Etorbidetik Zubietaraino. Lasarteren paseo-eremua da, eta gaur egungo egoera oso arriskutsua da. Atzerapen handia arlo horretan.</p>

LASARTE-ORIAKO UDALAREN EKINTZA-PLANEKO EKINTZAK

2. ILDO ESTRATEGIKOA: HIRI BARRUKO MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA HOBETZEA

EKINTZA	OHARRAK
<p>2.6.11.- Bizikletaren erabilera eta bide- hezkuntza sustatzea</p> <p>EKINTZAK: Bizikletaren erabilera sustatzen da, bidegorria egiteaz gain, Mugikortasun Iraunkorraren Astean antolatzen diren jardueren bidez.</p>	<p>Azpiegitura egokirik egon ezean, ezinezkoa da sustatze hori.</p>
<p>2.7.12.- Zerbitzu Sozialen eraikinetako irisgarritasuna hobetzea</p> <p>EKINTZAK: Villa Mirentxu egokituta, erraztu egin da Udaleko Zerbitzu Sozialetarako irisgarritasuna.</p>	<p>Zerbitzuak guztiz urrun daude auzoetatik.</p>
<p>2.7.13.- Igogailuak instalatzeko baimenen tramitazioa erraztea</p> <p>EKINTZAK: Etxebizitzetako eraikinetan igogailuak jartzeko baimenak ematen dira, eta igogailuak instalatzeko diru-laguntzak erregulatzen dituen ordenantza onartu da.</p>	<p>Ez bakarrik etxebizitzetarako, baita erabilera publikorako ere.</p>

LASARTE-ORIAKO UDALAREN EKINTZA-PLANEKO EKINTZAK

**2. ILDO ESTRATEGIKOA: HIRI BARRUKO MUGIKORTASUNA ETA
IRISGARRITASUNA HOBETZEA**

EKINTZA

OHARRAK

2.7.14.- Irisgarritasunerako Plana urtez urte gauzatzen jarraitzea

Soluzioak bilatzea mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.

EKINTZAK: *Irisgarritasunerako Planak aurrera jarraitzen du, Arranbide Kanean eta Adarra Plazan eskailera mekanikoak jarrita. Gainera, onartu da anbulatorioko bigarren solairuan udal-zerbitzuak habilitatzeko proiektua, eta bertan izango dira Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa, Kiroletako Bulegoa, Minusbaliatuen Elkarte, Euskaltegia eta eremu komunak.*

